


Urrutiko lan-akordioa idatziz egin beharko da, eta urrutiko lana hasi aurretik formalizatu beharko da. Akordio honen gutxienerako edukia honako hau da:



Itundutako urrutiko lana egiteko behar diren baliabideen, ekipoen eta erreminten inbentarioa, kontsumigarriak eta elementu higigarriak barne, bai eta bizitza erabilgarria edo horiek berritzeko gehieneko epea ere.



Urrutiko zerbitzuak emategatik langileak izan ditzakeen gastuen zerrenda, enpresak nahitaez ordaindu behar duen konpentsazioa kuantifikatzeko modua eta konpentsazio hori egiteko unea eta modua. Konpentsazio hori aplikatu beharreko hitzarmen edo akordio kolektiboan jasotakoarekin bat etorriko da, halakorik balego



Langilearen lan-ordutegia eta, hala badagokio, prestasun-arauak.



Aurrez aurreko lanaren eta urrutiko lanaren arteko banaketa eta ehunekoa, hala badagokio



Urrutiko langilea atxikita dagoen enpresaren lantokia, eta, hala badagokio, bertan egingo du aurrez aurreko lanaldiaren zatia.



Urrutiko lana egiteko langileak aukeratutako urrutiko lantokia



Itzulgarritasun-egoerak gauzatzeko aurreabisu-epen iraupena, hala badagokio.



Jardueraren enpresa-kontrolerako bitartekoak.



Urrutiko lana normaltasunez egitea eragozten duten zailtasun teknikoak izanez gero j arraitu beharreko prozedura.



Enpresak emandako jarraibideak, langileen legezko ordezkarien parte-hartzearekin, datuak babesteari buruzkoak, urrutiko lanean bereziki aplikatzekoak



Enpresak emandako jarraibideak, langileen legezko ordezkariari alde aurretik jakinarazita, urrutiko lanean berariaz aplikatzekoak diren informazioaren segurtasunari buruzkoak.



Urrutiko lan-akordioaren iraupena.

Akordioan ezarritako baldintzen aldaketa enpresaren eta langilearen artean adostu beharko da, eta idatziz formalizatu beharko da aplikatu aurretik.